

ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKI-EKINTZETARAKO LAGUNTZEN
DEIALDIAREN BARRUAN 3. MOTAKO KONTRATAZIORAKO
LAGUNTZAK ESKATZEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUTEN OINARRIEN
EREDUA

1. ARAUDI ERREGULATZAILEA

- Enplegua Sustatzeko Toki Ekintzetarako Laguntzei buruzko Agindua (13/10/18ko EHAA).
- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (03/11/18ko BOE).
- Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrari buruzko Araudia onartzen duen ekainaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua (06/07/25eko BOE).
- Hala badagokio,(e)ko Udalbatzak udal honetako diru-laguntzetarako onartutako ordenantza (.....(e)ko EHAA).

2. HELBURUA

Enpresei langabeak eta lan-eskatzaille moduan Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan (EEZ) inskribatutakoak ohiko merkatuan kontratatzeke erraztasunak ematea, betiere, udalerrri honetan finkatutako negozioak badira.

Publizitate, konkurrentzia eta objektibotasunaren printzipioen arabera, oinarri arautzaile hauek gardentasunaren parametroen eraginpean sustatzen dira, udalerriko enpresen eta langabeen artean ahalik eta zabalkunde handiena izan dezaten.

3. PERTSONA ONURADUNAK

Betekizunak:

- Oinarri hauek argitaratzen direnean udalerrian erroldatuta egotea. Toki-administrazioak ofizioz egiaztatuko du datu hori.
- Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaille moduan agertzea. Datu hori egiaztatzeke, lan-eskatzaillearen txartelaren fotokopia aurkeztu beharko da.
- Enpresariarekin edo enpresaren kontrola dutenekin edo zuzendaritzako karguak betetzen dituztenekin edo, hala badagokio, Administrazio Kontseiluko kideekin odolkidetasunagatik edo ezkontzagatik bigarren mailara arteko ahaidetasun-harremana daukaten ezkontidearekin, ondorengoekin eta gainerako ahaideekin ahaidetasun-harremanik ez dagoela egiaztatzeke zinpeko adierazpena aurkeztea.

4. ENPRESA ONURADUNAK

Betekizunak:

- Kontratazioaren edo kontratazioen ondorioz, kontratatutako langileak sartu aurretiko 3 hilabeteetan enpresan zeuden langileen batez besteko kopuru guztiaren arabera enplegu garbia sortzea. Justifikatu egin beharko da.
- Lantokia udalerrri honetan kokatuta egotea.
- Legezko ordezkarien NANen eta, hala badagokio, ahalorde-eskrituraren fotokopia aurkeztea.
- Kontratatutako konpromisoari buruzko adierazpen arduratsua eta indarreko lan-araudia zein laneko arriskuen prebentziorako araudia betetzeko konpromisoa aurkeztea.
- Kasuan kasuko ogasunak EJZko alta egiaztatzeke egindako ziurtagiria eta zerga horren azken ordainagiriaren fotokopia aurkeztea, enpresak zerga horren eraginpeko jarduerak garatzen dituenean. Enpresek zerga hori ordaintzerik ez badute, adierazpen arduratsuen bidez egiaztatu beharko dute.
- Zergen eta Gizarte Segurantzaren arloko betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztea (TC1 eta TC2).
- Udalarekin zorrik ez edukitzea. Udalak berak ofizioz egiaztatuko du egitate hori.
- Jarduera garatzeko udal hirigintza-lizentzia guztiak egunean izatea. Udaleko Hirigintza Sailak ofizioz egiaztatuko du egitate hori.
- Kontratatutakoari bere zeregina garatzeko beharrezkoak diren materiala eta jantziak emateko konpromisoa hartzea.
- Egingo den kontratuaren datuak ematea eta, ondoren, administrazio honi lan-kontratua aurkeztea.
- Langileari alta ematea Gizarte Segurantzari.
- Administrazio honi kontratazioaren ostean sortutako edozein aldaketaren edo arazoren berri ematea berehala.
- Eskatutako beste edozein betekizun betetzea.

5. KONTRATAZIO-MOTA

Kontratuen gutxieneko iraupena 3 hilekoa izango da edozein modalitatetan, prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuan izan ezik. Lanaldia osoa edo partziala izango da, eta, azken kasu horretan, lanaldiaren %50ekoa izan beharko da gutxienez.

Lan-kontratuak kasuan-kasuan eskatutako edo diruz lagundutako gutxieneko epealdia baino lehen amaitzen badira, emandako diru-laguntza itzuli beharko da, betiere, amaiera hori erakunde kontratugilearen borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik gertatu ez bada. Halakoetan, lan-kontratuaren benetako iraupenaren arabera murriztuko da diru-laguntzaren zenbatekoa.

6. ENPLEGURAKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK

- 3.000 euroko gehienezko laguntza, 3 hilabete iraungo duen lanaldi osoko kontratuko.
- 6.000 euroko gehienezko laguntza, 6 hilabete edo gehiago iraungo duen lanaldi osoko kontratuko.
- 9.000 euroko gehienezko laguntza, 6 hilabete edo gehiago iraungo duen lanaldi osoko kontratuko, honako hauexek kontratatzen direnean: diru-sarrerak bermatzeko errentako taldeak, lehen aldiz laneratzen diren 35 urtetik beherakoak eta kontratazioaren aurretiko 18 hilabeteetan gutxienez 12 hilabetez Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan inskribatuta egon direnak.

Lehenengo eta bigarren suposamenduetan, enpresak jaso beharreko laguntzaren azken zenbatekoa ez da kontratatutakoen soldata-kostuen eta Gizarte Segurantzako kostuen %75 baino handiagoa izango. Hirugarrenean, ordea, azken zenbatekoa ez da %100 baino handiagoa izango.

Lanaldi partzialeko kontratazio bakoitzean edo 3-6 hileko kontratuetan, lan egindako lanaldiaren arabera izango da hautatutako enpresari banatu beharreko diru-laguntza.

7. ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKUA

Oharra: erakunde bakoitzak zehaztuko du (Erregistro Orokorra, Enplegu Saila, Toki Garapenerako Agentzia edo antzekoa...).

8. AURKEZTEKO EPEA ETA EBAZTEKO EPEA

Oharra: erakunde bakoitzak zehaztuko du. Era berean, akatsak zuzentzeko epea zein den ere adierazi beharko da (esate baterako, 5 laneguneko).

Kontuan hartu beharrekoa: proiektuak 2014ko irailaren 30era arte betearazi ahal izango dira (egun hori barne).

9. PROZEDURA

Zenbait aukera daude:

A) SARRERAKO HURRENKERAREN ARABERA

Kasuan kasuko erregistrorako sarrerako hurrenkera zorrotzaren arabera hautatuko dira enpresak; eta, horren ondorioz, pertsonak, establezimendua edo negozio komertziala.

B) JARDUERA-MOTAREN ARABERA

Bertako eskualde-planen eta enpresa-sare interesgarriaren arabera, zenbait udalek honako sektore hauetara mugatzen dute laguntza-eskabidea:

- . Elikagaigintza edo saltegi xehekaria.
- . Ostalaritza.
- . IKTak.
- . Enpresa lagungarriak.
- . Zahartzea: laguntza-zerbitzuak, osasuna, elikadura, aisialdia...
- . Mugikortasuna: sistema logistikoak, garraioko sistema adimendunak, garraio berdea...
- . Iraunkortasuna: hornikuntza energetikoa, eraginkortasun energetikoa, energia berriztagarriak, hondakinen kudeaketa, uren arazketa, kutsatutako lurzorua biziberritzeko prozesua...
- . Beste batzuk: ikus-entzunezkoak, landa-turismoa, turismo ekologikoa, kulturala, nekazaritza eta arrantza, berrikuntza, ekodiseinua, eremuen berreskurapena...

C) BAREMAZIOA

Besteak beste, honako irizpide hauei eman ahal izango zaie puntuazioa:

- . Kontratazioen iraupena: zenbat eta luzeagoak izan, orduan eta puntu gehiago.
- . Pertsonen prestakuntza: eskualdeko premien arabera, puntu gehiago edo gutxiago eman ahal izango zaizkie unibertsitateko titulazioei, prestakuntza-maila handiagoa edo txikiagoa bilatzen den kontuan hartuta.
- . Eskatzailearen langabeziaren iraupena.
- . Premien arabera, puntu gehiago eman ahal izango zaizkie langile-kopuru zehatza duten ETE-ei edo, bestela, enpresa handiei edo kooperatibei.
- . Egoera txarragoan dauden taldeak: Berdintasunari buruzko Legea, ezintasunak, diru-sarrerak bermatzeko errenta, adingabeak...

10. PROZEDURA BIDERATZEKO ETA EBAZTEKO ORGANO ESKUDUNA

Oharra: erakunde bakoitzak zehaztuko du (Toki Gobernurako Batzordea, Enplegu Saila, Toki Garapenerako Agentzia edo antzekoa...).

11. DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA

Ez da diru-laguntza honen ordainketarik aurreratuko. Justifikazioa aurkeztu beharko da. Horretarako, udalak behar besteko agiriak eskatuko dizkio enpresari, eta kasuan kasuko ekintza egokiak betearaziko ditu.

12. BETEKIZUNAK EZ BETETZEA

Enpresak edo enpresa horrek kontratatutako langileak edozein betekizun betetzen ez badu eta, horren ondorioz, Lanbidek emandako eta udalak jaso beharreko diru-laguntza murrizten bada, laguntza-jasotzaileari jasanaraziko zaio, eta behar beste murriztu beharko da horren arabera.

13. ERREKURTSOAK

Esleipenari buruzko ebazpena ematen denean, bide administratiboari emango zaio amaiera. Gainera, ebazpen hori eman zuen organoaren aurrean, ebazpen horren aurkako berraztertzeke errekurtsoa aurkeztu ahal izango da hilabeteko epean, ebazpenari buruzko jakinarazpena jaso osteko hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Bestela, 2 hileko epean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere aurkeztu ahal izango da eskualde honetako Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean.

14. NORBERAREN DATUEN BABESA

Diru-laguntzarako eskabidea aurkezten duenean, ados dagoela, deialdian zehaztutako betekizun guztiak betetzen dituela eta bertan xedatutako guztia onartzen duela adieraziko du erakunde eskatzaileak.

Era berean, adieraziko du eskabidean zehaztutako datu pertsonalak bere baimenpean bildu direla, eta onartu egingo du datu horiek modu automatizatuan tratatzea eta udal honek behar bezala baimendutako fitxategietan gordetzea. Horrez gain, behar besteko baimena ere emango du, datu horiek udal-kudeaketan bakarrik erabili daitezen. Izan ere, beste administrazio publiko batzuei eta bertako organismoei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitako suposamenduetan.